

Aritz Martinez de Luna, Jokin Larrañaga eta Oskar Garcia de Bikuña

Posible da Arabako euskalgintzaren mapa bat marraztea?

2025-11-11



PLAZA

Mahai-inguru batekin bukatu genuen Gasteizko Euskaldunentzako Jabetze Eskolaren 2025-2026ko ikasturtea. Arabako euskalgintzaren mapa posible bat marrazteko aukerez, irizpideez, baldintzez... hizketan hasi, eta euskalgintzaren beraren gaur egungo egoeraren analisia egiten bukatu zuten Jokin Larrañagak, Oskar Garcia de Bikuñak eta Aritz Martinez de Lunak.

1. Arabako euskalgintzaren nolabaiteko mapa egiteko, euskalgintza zer den definitzetik hastea onena. Mikel Zalbideren bereizketa ekarri zuen Jokin Larrañagak: berariazko euskalgintza (helburu nagusitzat euskararen aurrerabidea duena) eta zeharkako euskalgintza (beste helburu bat izanik, euskararen aurrerabidean laguntzen duena) bereizten dituen, alegia. Asmoz eta jardunez euskararen alde lanean ari diren mugimendu, erakunde, gizartetalde... eta parekoak identifikatzea izango litzateke, beraz, maparen egitekoa.

2. Mapak, berez, definizioa eskatzen badu ere, **ezer izatekotan euskalgintzaren mapa lausoa litzatekeela** esatean bat etorri ziren hiru mahaikideak. Erakunde, elkarte, mugimendu... batek euskalgintzan aritzeko duen moduaren, eritmoaren, eta hartzen dituen funtzioek dute zerikusia horrekin.

3. Mapan sartzeko moduko hautagaiek ezaugarri berezirik (hau da, ezaugarri "arabarrik") duten galdetuta, kontu interesgarriak atera ziren. Batetik, **galera baten erantzuna izan beharrean, abiapuntu modura irabazte-joera duen euskalgintza bat dela azpimarratu zuten mahaikideek.** Uneko erreakzio bat baino, modu proaktiboan sortutako euskalgintza da Arabakoa. Eta, horri, bestelako ezaugarri "definituagoak" erantsi behar litzaizkioke: bizi dugun egoera soziolinguistikoa, egoera demografikoa (Gasteizen eta lurraldeko gainerako eremuen arteko aldea...)

4. Bestetik, eta agian lurraldera begira (baina Gasteiz kanpoan utzi gabe), **euskalgintzaren "polibalentzia" ere aipatu zuten mahaikideek, ezaugarri modura.** Arabako euskaltzaleak beste gauza asko ere badira: hainbat gizartemugimendutan dabilta, eta nahi izan gabe ere zeharkakotasuna lantzen dute, neurri horretan. Gainera, joera komunitarioa ere izan dezakete: elkar ezagutzen dute, sartzeko joera dute...

**Aritz Martinez de Luna,
Jokin Larrañaga eta
Oskar Garcia de Bikuña**
**Posible da Arabako euskalgintzaren
mapa bat marraztea?**
2025-11-11



5. Saioaren hasieratik, galdera bat zebilen airean: zertarako egin era horretako mapa bat? Zein da helburua?

Hizlarien arabera, indarrak optimizatzeko tresna izateko bokazioa izango luke, eta, horrez gain, estrategia komun eraginkorrak martxan jartzeko ere balio beharko luke. Mapak erakutsitakoak, mapan txertatutako elementuek duten funtzioa erakusteko balioko luke, eta, agian, mapan egon ezin duten baina bertan sartzeko aukera luketen elementuak identifikatzeko ere bai.

6. Bukatzeko, airean zebilen beste galdera bati ere erantzun zioten mahaikideek: mapa egitekotan... norentzat izango litzateke? Zein litzateke hartzailea?

Mapak bi erabilera izan beharko lituzkeela aipatu zuten: bata, publiko orokorrari zuzendua, lurraldean euskaraz bizitzeko dauden aukeren berri emango lukeena, eta, bestea, publiko espezifikokoagoari zuzendua, mapan jasotako elementuen arteko sinergiak, elkarlana eta koordinazioa bultzatzera begirakoa.